

GAO 2008-09-25 184 Zk.

ARRAZOIEN AZALPENA

1989an eta eskualdeko Gizarte Laguntzaileek beren lanean antzemana baitzuten famili barruan tratatu txarrak jasaten zituzten emakumezkoak bazeudela eta zituzten ekonomi nahiz afektibitate-menpekotasunak zirela bide famili egoitzan jarraitzen zutela tratatu txarrak bizitzan zehar jasaten; bidezkotzat jo zen tratatu txarrak jasaten zituzten Emakumezkoentzako Harrera-etxe bat sortzea, emakumezkoek berek zuten egoera pertsonalaz jabetu ahal izateko leku bat eskaini eta horretarako emandako zuhurtziazko denboraldi batean zehar etorkizunerako ikuspegi berriak azter zitzaten. Gainera, zerbitzu honen sorrerarekin, gizartean salatu egin nahi zen emakumezkoak jasaten duen indarkeriaren menpeko egoera eta egoera horretaz jabe zedila lortu nahi zen. Geroztik bidezkotzat jo zen etxebizitza horretan, tratatu txarrak jasandako emakumezkoak ezezik, famili barruan defentsa gabezia edota irainak jasaten zituztenei ere babesa eskaintzea, beraz, Baztertutako Emakumezkoentzat prestatutako zerbitzutzat hartzen da. Azken urteotan funtsezko arau-aurrerapenak egin dira gure ordenamendu juridikoan, bai Estatu mailan bai Autonomia Erkidegoan. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituen onartzeak, Beasaingo Udalak duen emakumezkoentzako harrera-etxeko araudi erregulatzailea egokitzearen beharra dakar.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Araudi honen xedea, Udal-titularitateko Emakumezkoentzako Harrera-etxearen prestazioak erregulatzea da.

2. artikulua. Helburuak

Emakumeentzako Harrera-etxeak honako helburuak ditu:

- a. Etxeko eremuan tratatu txarrak jasan izanaren ondorioz edo/eta defentsa gabeziaren ondorioz, ohiko bizilekua aldatzera behartuta dauden emakumeek, edo haien mende dauden pertsonak (haien kargu dauden seme-alabei -adin txikikoak direnei zein ez direnei- edo haien mende dauden helduei) aldi baterako ostaturik ematea.
- b. Pertsona horiei aukera eskaintzea beren egoera pertsonalean eta familia-egoeran beharrezkotzat edo egokitatzat hartzen dituzten

aldaketak egiteko, eta horretarako erabakiak hartzeko astia eta babes egokiak ingurune seguru batean izateko.

- c. Emakumeen autonomia pertsonala sustatzea egoerari egokiro aurre egin ahal izan diezaioten, eta, horretarako, beharrezkoa den aholkularitza, informazioa eta laguntza eskaintzea eta babes-baliabiderik egokienak eskuratzeko aukera ematea.
- d. Premietara egokitutako laguntza eta gizarte-babes trinkoa ematea.
- e. Lagundutako pertsonen segurtasun fisikoa eta psikikoa eta, bereziki, harrera-baliabidearen kokapenaren konfidentzialtasuna bermatzea, babes-funtzioak bete behar dituzten eragile publiko judizialei edo polizialei dagokienez izan ezik.

3. artikulua. Hartutako pertsonak

Araudi honetan araututako Harrera-etxean lagundutako pertsonak honako hauek izango dira:

- a. Aldi baterako eta premiazko babesaren eta ostatuaren beharra duten, eta etxeko eremuan tratatu txarrak jasan edo/eta defentsa gabezia izanagatik ohiko bizilekua utzi behar duten eta horrelako zerbitzu bat behar duten emakume adindunak edo emantzipatuta dauden adin txikikoak.
- b. a. Idatz-zatian adierazitako emakumeen mendeko pertsonak, hots, haien kargu dauden seme-alabak (adin txikikoak diren edo ez diren kontuan hartu gabe) edo mendeko helduak, betiere bizikidetzaren unitate berekoak badira. Ondorio horietarako, hartutako emakumearen guraso-aginteari, tutoretzari, kuratelari edo zaintzari lotuta dauden adin txikikoak hartuko dira emakumeen kargu dauden adingabetzat, emakumeek aginte horiek eraginkortasunez eta eskusiboki erabiltzen dituztenean, edota, beste pertsona batekin batera erabiliz gero, arrisku-egoerak saihesteko pertsona horiek emakumearekin bizitzea komeni denean, edo agintaritza eskudunak hori xedatzen duenean.

4. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

1. Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako eskubideak izango dituzte hartutako pertsonak.

2. Berariaz, hartutako pertsonak honako eskubide hauek izango dituzte:

- a. Baliabidean irauteko eskubidea, araudi honetan egonaldia amaitzeko adierazitako arrazoiren bat agertzen ez den bitartean.

- b. Hartutako bizikidetza-unitateko kide guztiak elkarrekin egoteko eskubidea. Horretarako, baliabide berean hartuko dira denak.
- c. Datu pertsonalen babeserako eta konfidentziasunerako eskubidea.
- d. Harrera-baliabidearen instalazioak eta baliabidean dauden erabilera komuneko objektuak, ekipamenduak eta tresnak erabiltzeko eskubidea.
- e. Gaur egun dauden baliabide sozialei, psikologikoei, sanitarioei, hezkuntza-arlokoiei, kultura-arlokoiei, judizialei eta pertsona horien profilera eta premietara egokitutako beste batzuei, eta horiek lortzeko moduari buruzko informazioa eta aholkularitza jasotzeko eskubidea.
- f. Bertan dauden bitartean gizarte- eta hezkuntza-arloko eta laguntza programa batean txertatzeko eskubidea.
- g. Baliabidearen eskaera idatziz egiteko eta bost egun naturaleko gehieneko epean idatzizko erantzuna jasotzeko eskubidea.
- h. Laguntza indibiduala eta familia-arlokoa, eta pertsonalizatua jasotzeko eskubidea.
- i. Norberaren borondatez zerbitzua uzteko eskubidea.
- j. Eskubide horien edukiari eta eskubide horiek baliatzeko bideei buruzko informazioa erraz ulertzeko moduan jasotzeko eskubidea.

5. artikulua. Hartutako pertsonen betebeharrak

1. Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako betebeharrak izango dituzte hartutako pertsonak.

2. Berariaz, hartutako pertsonak honako betebeharrak izango dituzte:

- a. Harrera-etxean sartzeko eskaera eta Harrera-etxea erabiltzeko araudi honetan ezarritako arauak betetzeko konpromisoa sinatzea, hau da, 1 zenbakidun. eranskineko dokumentua sinatzea.
- b. Gizarte-zerbitzuek eskatutako dokumentazioa dagokion epean aurkeztea.
- c. Beren seme-alaben edo beren kargu dauden beste pertsona batzuen zaintzaz arduratzea.
- d. Baliabidea erabiltzen duten gainerako pertsonen pentsamendu-askatasuna, iritzi-askatasuna, ideologia-askatasuna eta erlijio-askatasuna errespetatzea.
- e. Hartutako pertsonen artean gatazkarik edo desadostasunik izanez gero, erakunde arduradunak erabakitako neurriak betetzea.

- f. Baliabidearen helbidea eta telefono-zenbakia anonimatuan gordetzea. Beste erakunde publiko batzuek bizilekuaren datuak eskatzen dituztenean, erreferentzia gisa, oinarrizko gizarte-zerbitzuaren edo zerbitzu horren erakunde arduradunaren helbidea eman beharko da.
- g. Elkarbizitza errazteko elkarren arteko errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jarrera agertzea, bai egoiliarren bai bizilagunen artean; era berean etxeko jabekideek jarritako arauak betetzea.
- h. Diru-sarrerara propioak dituzten egoiliarrek, beren janari-gastuak ordaindu egin beharko dituzte.
- i. Etxebizitzan eskuragarri dituzten objektuak, ekipamenduak eta tresnak egokiro eta errespetuz erabiltzea.
- j. Baliabidearen instalazioetan nahita edo zabarkeria larriagatik eragindako kalteez erantzutea.
- k. Zerbitzuan hartuta ez dauden edo langile baimenduak ez diren pertsonei sartzen ez uztea, arduradunen esan-bidezko baimena dutenean izan ezik.
- l. Etxebizitzako giltzen kopiarik ez egitea, ezta beste pertsonei giltzak uztea ere. Egonaldia amaitzean, giltzak etxebizitzaren arduradunari entregatu beharko dizkio.
- m. Baliabidean animaliarik ez izatea, zakur gidariei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legean jasotako baldintzetan edota baliabidearen ardura duen erakundeak esan-bidez baimendutako beste kasu batzuetan izan ezik.
- n. Erreferentziazko gizarte-zerbitzuek landutako plan indibiduala edo familia-plana betetzea.

6. artikulua. Sartzeko baldintzak.

- 1. Harrera-etxebizitzetan sartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskatzaileek:
 - a. Segurtasun-baldintzetan bizitzeko etxebizitza alternatiborik ez izatea, edo berehala erabili ezin izatea.
 - b. Harrera-etxebizitza dagoen udalerriko edo, lankidetzaren printzipioa aplikatuta, EAEko beste edozein udalerriko erroldan inskribatuta egotea. Azken kasu horretan, inplikaturako erakundearen arteko lankidetzaren eta harreraren ondoriozko gastuen finantzaketa antolatzean, alde batetik, hartutako emakumearentzat kaltegarria ez izatea hartuko da kontuan, eta, bestetik, erakundeek beren gain hartu beharreko erantzukizunaren artean desorekarik ez sortzea.
- 2. Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta ez dauden eskatzaileen kasuan, hasierako harrera baimenduko da, baina, baliabidean jarraitzeko, beharrezkoa izango da erroldatzeko izapideak hastea, Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan erroldatuta dauden eta erroldatuta dauden lekua aldatu nahi ez duten pertsonei.

nen kasuan izan ezik. Kasu horretan, aurreko idatz-zatian inplikaturako erakundearen arteko lankidetzari eta egonaldiaren ondoriozko gastuen finantzaketari buruz xedaturakoa aplikatuko da.

7. artikulua. Sartzeko modua.

1. Harrera-etxebizitza lortzeko hasierako eskaera oinarritzko gizarte-zerbitzuaren bitartez egin beharko da, eta zerbitzu horrek egoeraren premiak eskatzen duen arintasunarekin bideratu beharko du. Nolanahi ere, geroago egoeraren zirkunstantziak eta ezaugarriak aztertu beharko dira premien ebaluazio baten esparruan, eta, hala badagokio, egoera horri laguntza-plan indibidual batekin edo familia-plan batekin erantzungo zaio.
2. Sartzeko unean edo aurretik, idatziz jasoarazi beharko da hartutako pertsonak baimena ematen duela, eta harrera-etxebizitzaren antolamenduari, funtzionamenduari eta bizikidetzari lotutako baldintzak, berehalako harrera-zerbitzuaren informazioko, orientazioko eta laguntzako zerbitzuen esku-hartzea (etxebizitza zerbitzu horren bitartez lortzen bada), eta erreferentziazko gizarte-zerbitzuak premiei dagokienez egindako balioespena onartzen dituela.
3. Sartzeko unean, harrera-etxebizitzaren giltza emango zaio hartutako pertsonari; etxebizitzan beste bizikidetzak-unitate batekin bizi bada, bere bizikidetzak-unitateari dagozkion gelen giltzak emango zaizkio.
4. Zirkunstantziengatik hartutako pertsona beste udalerri bateko harrera-etxebizitza batera joatea komeni bada, dauden koordinazio-protokoloak jarraituko zaie.

8. artikulua. Egonaldia.

Egonaldiak familia-etxebizitzaren erabileraren esleipena ezartzen duten prozedura judizialen ebazpenaren datara bitartean iraungo du - gutxienez, erabiltzaileak berak egonaldiaren amaiera eskatzen duenean izan ezik. Edonola ere, 4 hilabeteko epea igaro ondoren, beste gizarte-baliabide, gizarte-programa, etxebizitza-baliabide edo etxebizitza-programa batzuen bidez erantzun ahal izango zaio ostatu-premiari, betiere premien balioespen batek hori aholkatzen badu; bestela, hasiera batean ezarritako epea luzatu ahal izango da, betiere harrera eragin zuten baldintzak aldatzen ez badira. Salbuespen moduan eta hartutako pertsonak arrisku egoeran dauden adingabekoen familientzako esku-hartze familiarren programan parte hartzen duen kasuetan, egonaldi- epea esku-hartze familiarren programaren iraupenera eta lankidetzak aktibora baldintzatuta egongo da.

9. artikulua. Oinarrizko gizarte-zerbitzuen esku-hartzea.
Harrera-etxebizitzaren erabiltzaileek erreferentziazko profesional bat izan beharko dute oinarrizko gizarte-zerbitzuan. Profesional horrek premiak ebaluatuko ditu eta zaintzarako plan indibidual bat edo familia-plan bat landuko du.

10. artikulua. Egonaldiaren amaiera.

1. Egonaldiaren amaiera eragingo duten zirkunstantziak honako hauek dira:
 - Sartzeko baldintzak galdu edo amaitu izana.
 - 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki ezarritako egonaldiaren epea amaitu izana.
 - Ezarritako betebeharrak bete ez izana.
 - Beste ostatu-alternatiba bat.
 - Interesdunak esan-bidez uko egin izana.
2. Hartutako pertsonak 2 asteko epea izango dute harrera-etxebizitza uzteko, aurreko idatz-zatietan adierazitako amaitzeko arrazoiren bat agertuz gero. Epe hori igaro ondoren etxebizitza utzi ezean, utzarazteko bidezkoak diren lege-neurriak hartu ahal izango dira, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1999 Legean aurreikusitakoa errespetatuta.
3. Aurrekoa gorabehera, c) kasua agertzen bada eta ez-betetzea 5.2.k artikuluari lotuta badago, hartutako pertsonak etxebizitza berehala utzi beharko dute.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan jaso ez diren arlo guztietarako edota bertan aurreikusi ez arren aurkez daitezken kasu berezi guztietarako, Udaleko Gizarte Ongizate Batzordeak ahalmen osoa izango du kasu bakoitzean komenigarriak irizten dituen neurriak proposatzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Udal-titularitateko Emakumezkoentzako Harrera-etxeko Araudi erregulatzaile honek indarrik gabe uzten du 1996ko irailaren 16an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 178 zenbakidunean argitaratutakoa.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

1 ERANSKINA

UDALAREN HARRERA-ETXEA
ERABILTZEKO DOKUMENTUA

Beasainen, (e)ko ren
.....(e)an.

BILDURIK

Alde batetik,
..... J./A., Beasaingo Udaleko Alkatea, NA-zk.
..... duena, Beasaingo Udal T.G.aren
izenean eta bere ordezkari legez eta bestetik
.....A., NA-
zk. duena.

AURREKINAK

1. Beasaingo Udalak bere jabetzakoa duen etxebizitza bat egokitu du Harrera-etxe modura, Araudi honetan azaldutako egoerei irtenbidea aurkitzeko.
2.
.....A.ak udal-etxebizitza denboraldirako erabiltzea eskatu du
.....dela bide.
3. Udaleko Gizarte-zerbitzuek egiaztatu egin dute eskatzaileak azaldutako behin-behineko beharrizan-egoera.
4. Bi aldeek ere elkarri, kontratuak egiteko eta obligaziotan sartzeko gaitasuna aitortuta, dokumentu hau formalizatu dute ondorengo baldintzen arabera:

BALDINTZAK

Lehena. Beasaingo Udal T.G.ak, aipatutako etxebizitzaren behin-behineko erabilpena eta gozamena laga du.

.....
..... A.ak onartu egin du lagapena eta Harrera-etxearen araudiak 5. artikuluan jasotako betebeharrak, osotasunean ezagutzen dituenak, betetzeko konpromisoa hartu du.

Bigarrena. Harrera-etxea,

..... A.ak eta bere kargura dauden honako pertsonak: Bakar-bakarrik okupatu ahal izango dute.

Hirugarrena. Beasaingo Udal T.G.ak bere esku gordetzen du dokumentu honetan adierazitakoa ezarritako epea baino lehen indarrik gabe uzteko aukera, beti ere, inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean noski:

- a. Harrera-etxean egon beharra eragin duen egoera konpondua izango balitz.
- b. Harrera-etxeko araudian ezarritako baldintzetako edozein ere beteko ez balitz.

Adostasun-seinaletzat eta honen berrespen oso gisa, aipatutako data eta lekuan sinatu dute bikoiztutako dokumentu hau.

Azken eguneratzea: 2008/12/04